



ETXERATEN ELKARRETARATZEA, BIHAR

Espetxeetako egoera salatzeke herritarrek kalera deitu dituzte; bilkura Triangulo plazan egingo dute 19:00etan >7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2010-02-12

VIII. URTEA 1926. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



ELURRA ERE INAUTERIEKIN

TOLOSA Giro hotzari aurre eginaz ehunka Inauterizale elkartu ziren atzo jaiaren hasieran, Plaza Zaharrean

TXUPINAZOA Patxi Amianok irakurri zuen pregoia; besteak beste Alberto Arzuagaren lana aipatu zuen 4-5



Atzo hasi ziren Tolosako Inauteriak. Plaza Zaharra jendez gainezka zegoen txupinazoaren unean. Ostegun Gizeneko bigarren protagonista nagusia elurra izan zen. E.MAIZ



Tolosako Inauterietarako
eskaintza berezia

angula kiloa 390 €

arraindegi honen eskutik dator eskaintza:

ARTOLA arraindegia • Tel.: 943 674 406
Korreo 33 - TOLOSA


Ondo pasa Inauteriak eta era berean ez gara ahazten
jaiak etxetik kanpo pasako dituzten preso eta iheslarietarako!

festa on guztioi!



K Komikia

NANDO (I)



«Munduko festarik onenak dira Inauteriak, oso oroitzapen onak ekartzen dizkidatenak»

YOANA MENDEZ » Inauterizalea

Tolosa » Mozorroa gutxienekoa da, etxeko trapuekin ateratzea gustatzen zaio Yoana Mendez (Tolosa, 1977); hau da, tolosar peto-petoa. Izan ere, ez omen da tolosarririk Inauterizale ez dena. Aurtengoan ere ez du hutsik egingo festa hauetan eta dagoeneko «gogotsu eta egunak heltzeko gogoz» dago tolosarra.

NOELIA LATABURU

Kalean ibiltzea, mozorrotzea, eguneko parranda... gustatzen zaion horietakoa da Yoana Mendez (Tolosa, 1977); hau da, tolosar peto-petoa. Izan ere, ez omen da tolosarririk Inauterizale ez dena. Aurtengoan ere ez du hutsik egingo festa hauetan eta dagoeneko «gogotsu eta egunak heltzeko gogoz» dago tolosarra.

Zer dira zuretzat Tolosako Inauteriak?

Munduko festarik onenak dira Inauteriak, dudarik gabe; oroitzapen oso onak etortzen zaizkit burura Inauterietako egunak gogoratzean.

Egun handien atarian gaude. Zer sententzio duzu?

Egia esan, Zaldunita noiz helduko



Yoana Mendez -hirugarrena ezkerretik- egunero kalean izango da. HITZA

zain nago, urduri, noiz helduko zain eta, nola ez, festa handia hasiteko gogotsu.

Mozorroaren inguruan beti izaten da koadrilan eztabaida. Zure-

an ere asko kostatu al zaizue mozorroa erabakitzea?

Beste gauzekin agian izaten da istilurik baina aurtengoan ez, egia esan, ezta mozorroekin ere; azkar

» TRAGOXKA BATEAN

■ Txupinazoarekin?

Hasiera.

■ Egunik onena?

Zaldunita.

■ Txaranga doinu bat?

Behera-behera, txarangetako edozein.

■ Mozorro bat?

Etxeko trapuak.

■ Kalea ala taberna?

Kalea.

■ Gaua ala eguna?

Eguna.

erabaki ditugu, bestelako arazorik gabe. Kontua ondo pasatzea da.

Zer ezin daiteke falta Inauterietan?

Inauterietan bereziak diren elementuak, noski, eta beste jai batzuetan ez daudenak; esaterako, txaranga, karrozak, jendearen parte-hartzea, mozorroak, ... Hauek egiten dituzte berezi Inauterietan.

Zer gustatzen zaizu gehien jai hauetatik?

Dudarik gabe kalean topatzen duzun giroa, umorea, algarra... Oro har, jendeak berak jartzen duen giroa da bereziena, hori gabe ez lirateke Inauteriak izango.

Parte-hartzaileak iruditzen al zaizkizu Tolosako Inauteriak?

Bai, hori dute berezi, hau da, herritakoak eta parte-hartzaileak direla Inauteriak.

«Txaranga, mozorroak, karrozak, jendea, ... ezin dira inolaz ere faltatu Tolosako Inauterietan»

Txinatar bat galduta dabil Zaldunita egunean Tolosan. «Zer da zoramen hau?» galdetu dizu. Azaldu iezaiezu zer diren Tolosako Inauteriak?

Festa hau zer den azaltzeko modurik onena bera Tolosan gelditzea izango da, eta disfruta dezala giroarekin. Horrela egin ez gero, ziur datorren urtean ere berriz Tolosara gerturatuko dela.

Tolosarrek zerbait berezia omen duzue Inauteri guztiak agoantzetako...

Ez da ezer berezirik behar, ilusioa eta gogoarekin nahiko da. Kanpotik datozenek ere izan dezakete, baina tolosarrentzat ia beharrezkoa da, egunero aguantatzea ez baita erraza.



Txikiak ere handienen pare



Alkizako txikiak lanbide ezberdinez jantzi ziren eta beraien ikuskizuna eskaini zuten. HITZA



Berrobiko ikasle eta irakasleak indioz jantzi ziren eta suaren bueltan dantzatu ziren. HITZA



Anoetako ikasleak herenegun egin zuten emanaldia. HITZA



Tolosako Laskorain, Samanigo eta Hirukideko eskolako ikasleak eta baita Albizurrekoak ere. HITZA



tolosaldeko.hitza.iragarkilaburrak.com

Astelehen aratetik 7:00ak arte jentako iragarkiak soilik argitaratuko dira.
IRAGARKIAK JARTZEKO: www.tolosaldeko.hitza.iragarkilaburrak.com / 943-65 56 95 telefono zentralakia

Hiztasunak
ETXEBIZITZAK
SALDU

Tolosa. Voth-Gorostidi-ko enakuntza berriko etxebizitza salgai (75m²). Promotorea erabiltze zuzeneko salmenta. Sekulde eta 2 komunak, egongela handia eta 2 logia ditu. Argitua da. Komuna lan erak, beste gutxi kanpora begira dago. 2 terraza eder ditu eta baita trasteroa ere. Prezioa salmenta. 658-72 92 88.

Talantzia
INFORMATIKA/VIDEO-JOKUAK
EROSI

Nirrendo erosi. Sigaren enakuntza Nirrendo DS erosi nahi. 626-73 40 19.

Lan/iragarkiak
LAN ESKARIAK
PERTSONAK ZAINDU

Arnezketak. Gizoneko lanbidea dabil. Pertsona helduak zaintzeko, baserriko lanak egiteko edota beste edozein lan egiteko prest dago. Harremanetarako: 679-80 38 70.

GANERAKOAK

Tolosa. Gizonetan lan egiteko labeen erakunde enakuntza nahi. Esperientzia handia du, instalazio, haur zainketa, nahiz garbiketa. Harremanetarako: 675-00 68 56.

LAN ESKARITZAK
ETXERO LANAK

Tolosa. Enakuntza eskaintzen du aratetik garbiketa edo urrak.

zaintza. Deitu 943-65 02 72 telefonoa.

KANPOKOAK GUREAN
Hiztasunak
ETXEBIZITZAK
SALDU

Lamangie (Frantziapirineak). Estudio salgai La Morgia-n 70.000 euroren truke. Harremanetarako telefonoa: 629-328453.

Lan/iragarkiak
LAN ESKARIAK
IRAKASKITZAK

Lasarte-oria. Photoshop eskola partikularik ematen dute. Argazkitan erabiltzeko ukitu digitala. Esperientziaduna informatika eta diseinu eskola ematen. Telefonoa: 626-73 40 19.

zentralakia 626-73 40 19.
GANERAKOAK

Lasarte-oria. Masajista profesionala. Dialektu eta beste teknikak lantzen ditut, gorputza berri-estuzatuz, unean hartuta. Artikulazio arazoak, tentsio muskularrak, biokemikoen... aztertzen ditut. Ez lortuko langabezan edo diru arazorik izanez gero. 637-58 40 95.

Hiztasunak
BESTE IRAGARKIAK

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • IRABAZU TEMPORAL
ALDIBATEKO LANA
Bengara, 7 (bentru komertziala) • BEASAIN
943-16 20 48
Hasi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

540,00
Karabana salgai. Oso ongi dago. Egongela, bi-kote dila eta 2 litera ditu. Baita ohetsor/indoro elektriko, konketa eta beste gila batean duta ere. Berrogiua truma N64 3000 markakoa da eta ur beronko berrogiua Heuer CCI. Hotzagiua, mikrohuinak eta telebista antena ere baditu. Bateria du kamping kanpoan argidaria vateko. Itxiera eta itxiera portatila ere baditu. Harremanetarako: 626-73 24 42.

saltzeko, erosteko, alokatzeko, bilatzeko, oparitzeko...

tolosaldeko.hitza.iragarkilaburrak.com

Interneten
iragarki guztiak doan

Paperean
ostiralean atal honetan doan saktu eta onerari eman ez beste iragarki guztiak zuzeneko papereko edizioa ere iragarki sartzerakoan

iragarkien prezioak:
Aste bat 5 €
bi aste 9 €
hiru aste 12 €
bost aste 17 €



Eduardo Mokoroa udal musika eskolako Ozenki txistu taldea iazko Ostiral Mehean sukaldariz jantzita. Aurten mozorro berria estreinatuko dute. HITZA

Real-Athletic txistu derbya musika eskolako Ozenki taldearen eskutik

Txistua » Ikaslez eta ikasle ohiez osatutako Ozenki txistu taldeak protagonismo berezia izangodu gaur

JOXEMI SAIZAR

Ostiral Mehea da, dudarik gabe, Inauterietako egunik lasaiena, ekitaldi gutxienean duena egitarauan.

Gaur txistuak protagonismo berezia dauka, txarangen atsedean eguna aprobetxatuz. Eduardo Mokoroa udal musika eskolako txistu ikasleak; Ozenki taldea izenarekin, aterako dira gaur kalera, festari bere ekarpen txoa egitera. Proposamen berriarekin gainera: Real-Athletic txistu derbya.

«Hogei urte edo gehiago izango dira Inauterietan ikasleekin kalera ateratzen gara. Hasieran Ostegun Gizenan ateratzen ginen, txistuak bakarrik, bonbo batzue-

kin eta. Baina egun horretan zaila zen Pintxana eta Kabi Alai txarangei aurre egitea txistuarekin. Zeuden aukerak begiratu eta Ostiral Mehea aukeratu genuen, ez dagoelako beste ezer. Horrela egun hori ere zerbait animatzen dugu», azaltzen du Iñaki Letamendia txistu irakasleak eta Udal Musika Ban-

«Hasieran ez ginen mozorrotzen, baina gerora sukaldariz jantztea erabaki genuen»

dako zuzendariak. Gainera egun honetan txarangeak metal instrumentista batzuk libre daudenez, azken urteotan taldea osatu eta handitu egin dute: lau tronpeta, lau bombardino, tuba, perkusiojoleak... Txistu ikasle guztiak ateratzen dira, txikienak kenduta, eta ikasle izandako batzuk ere bai, 20

bat txistulari guztira. Denak he-men ingurukoak. Bada txistu harrobia. Lehen aipatutako metal, perkusio eta bestelako laguntzailak kontatuta, 40 lagun inguru guztira.

Urteroko ibilbidea

Urteroko ibilbidea egingo dute aurten ere: eguerdian Udal Musika Eskolatik abiatu, Korreo kalea, San Frantzisko pasealekua, Gernikako Arbola, San Frantzisko, Alde Zaharreko kaleak eta plaza Berriar bukatu, Ikatza tabernan zerbait bazkalduz. Inauterietako errepertorioa izango da Ozenki txistu taldeak bere kalejiran eta geldialdietan eskainiko duena.

Aurten berrikuntza dakarte. «Hasieran batean ez ginen mozorrotzen. Hamaiketako egiten genuen Gure Txokoa elkartean, txistuak hartu eta kalera ateratzen ginen. Gero zerbait jantzi behar genuela pentsatu eta sukaldariz

ateratzea erabaki genuen. Baina batzuk aspertuta zeuden eta zerbait berria egin behar zela pentsatu genuen. Neska batek, ikasle batek, proposatu zuen Real-Athletic derbya ateratzea», dio.

Gazteak Errealzaleak

Batzuk Errealzaleak dira (gazte gehienak), besteak Athletic-zaleak (heldu gehienak). Osasunako norbait agertzea ere baliteke. Bakoiak jantzitako kamiseta, bufanda eta txapelekin, eta laguntzailen ikurrina, bi taldeen bandera eta pankartarekin «kolorez betetako musika taldea» osatuko dutela iruditzen zaio irakasleari. Zein izango da irabazle derbyan?

Baina ez da honekin isilduko txistuaren soinua Inauteir egun hauetan. Ondorengo egunetan ere Udal Txistulari Banda egunero entzuteko aukera izango da diantetan, arratsaldeetan zezenetara joateko Idiarenak eta zezenketak...

» GAURKO EGITARAU

TOLOSA

- **12:00.** Ozenki Txistulari taldearen kalejira.
- **16:30.** Zezen Plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangak alaituta. Ondoren, kalejira.
- **20:00.** Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor aretoan.
- **22:45.** Ostiral Mehe eguneko danborrada.

Txosnak

- **18:00.** Irekiera.
- **22:30.** Kontzertuak Namec planet (Elorrio) eta Darling shoes (Soraluze).

AMEZKETA

- **15:00.** Eskolatik atera eta kalejira egingo dute plazaraino. (Eguraldi txarra eginez gero frontoian geldituko dira). Gero guraso elkarrekin merienda banatuko du.

ASTEASU

- **15:45.** Desfilea egingo dute, herrian bi geldialdi eginez. Bigarrenean zortzikoa dantzatzeko dute. Lamiteri zelaian gurasoekin eginiko Mielotxin erraldoia ere erreko dute. Ondoren merienda.

ZIZURKIL

- **15:30.** Zizurkilgo ikastolan hippiz mozorrotuko dira. Desfilea izango da lehendabizi eta bukatzeko dantza emanaldia izango dute plazan.



Pasa den urtean ere mozorrotu ziren Asteasun. I. TERRADILLOS

FUNERARIA VASCONGADA

EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA

TELEFONO: 943 67 00 40 FAX: 943 670719

WWW.FUNERARIAVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA

902 402 900

Hilberria

FELIPE ALTUNA INSAUSTI

Atzo hil zen, 78 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Anima zuzendaria: Juan Mari Olaetxea; emaztea: Joakina Jauregi; seme-alabak: Jose Ignacio eta Jesusa Maiz, Lurdes eta Pako Zubeldia, Carmele eta Jose Ignacio Zabala, Arantxa eta Daniel Urkola; bilobak: Iñaki, Xabier, Ainara, Oier, Aimar, Ander, Eneritz, Eneko; ania-arrebak: Martin eta Juana Barandiaran (?), Joxe (?), Joakina eta Angel Iñurrategi (?), Gabriel eta Maria Elizegi, Matea (?) eta Gregorio Eñaola (?), Jesusa eta Mariano Jauregi (?), Santiago eta Itziar Imaz (?), Mariano eta Maria Jesus Garmendia, Juan (?), Julian eta Arantxa Iraola (?); ezkon ania-arrebak: Ignacio Jauregi (?), Joxepi Jauregi, Antonio Jauregi (?), Juan Jauregi; ilobak: lehengusua eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoiñ bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitzela GAUR OSTIRALA, arratsaldeko BOSTETAN, SAN MARTIN parrokian elizan, gorpua aurrean dela egingo den hiletara-elizkizunerako. Eskerrik asko guztioi alde zuretik.



ATAUN

2010eko otsailaren 12a

Helbidea: Otadi Zelai baserria.
Oharra: gorpua Beasaingo Goierni Beilatokian egongo da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943-65 56 95

G Gutunak

Besarkada bat

Besarkada bat ematen denean gauza asko eta desberdinak adierazi daitezke. Eman edo jasoko duen pertsonaren, sentimenduaren edota egoeraren arabera.

Espetxean adibidez, sartu berri den edo kalera irtegan den lagunari emandakoa, kartzela aldaketa dagoenean eta agur moduan emandakoa, eta gero bisitatzen datozenei ematen zaiena. Besarkada guzti hauek sentimenduz beterik daude, batzutan pozez eta besteean tristeziak, baina zailtasunen gainetik esperantzaz beterik.

Estatu espainoleko sarraski espetxeetan bisitatzeko orduan,

lagunak kristal eta barroteen artean ikusi behar dituzu, ekiditen duena besarkatu ahal izatea, eta duela hila bete batzuetatik hona *bis a bis*-ak egiteko oztopoak jartzen ari dira, senideak miatu nahian, eta berdin zaie, andre nagusi, ume edo pertsona elbarritua baldin bada. Guzti hau beraien miseriaren adierazgarri argiena.

Aipatu azken eraso agindu politiko bat da, preso eta senideak gaztigatzeko, presioa sartzeko, beraien dispersio politikaren beste urrats bat. Guztia noski eraiki nahi dugun eta abiatuko dugun iraultza politikoarekin erabat lotua.

Beldur diote herriari eta honelakoetan badakite bai non egin kal-

tea, errepresioa dutelako herri honentzako alternatiba bakarra. Gezurra, intoxikazioa, manipulazioa eta hamaika neurriekin herri honen askatasun nahia zapuztu nahi dute. Baina berriro ere ederki trompatu dira, zeren eta iparra zein dugun aski argi dugulako: bideak bide Euskal Herriaren askapen prozesua. Denon artean lortuko dugula ziur izan, azken finean ezina ekin ez egiten delako.

Amaitzeko, gutun hau idazteak bultzatu nauen zuei besarkatzeko desirari jarraiki, goraintziak eskualdeko presoon senide eta lagun guztiari. Animo Ta Segi Aurrera!

Haimar Altuna, 'Txiki'. Lizartzako preso politikoa.

Beterriko finala bihar Irrintzin

ERREDAKZIOA

Beterriko III. Bertsolari Txapelketaren finala bihar, hilaren 13an, jokatuko da Villabonako Irrintzi elkartearen *Sorgin-orratzak* eta *Mandeliak* lehiatuko dira 80 lagunentzat antolatuta duten bertso afariaren ostean.

Iñaki Apalategi, Ander Lizarralde eta Unai Muñoz osatzen dute *Sorgin-orratzak* taldea. *Mandeliak* bezala berri, Iñaki Gurrutxaga, Jon Martin eta *Ministro* ariko dira. Azken honek Agin Rezolaren lekua hartuko du. Azken sarrerak Ogiogoxon aurkitzen dira salgai.



Mandeliak taldea: Iñaki Gurrutxaga, Agin Rezola eta Jon Martin. HITZA

Etxeratak elkarretaratzea egingo du Tolosan bihar 19:00etan

Elkartasuna » Tolosaldeko Etxeratak Triangulora deitu dituzte herritarrak hilaren 13an, espetxeetako «egoera larria» salatzerako.

ERREDAKZIOA

Espetxeetako egoera gero eta larriago dela jakinarazi du Tolosaldeko Etxeratak: «Sakabanaketak, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak ez askatzea, bizi osorako zigorra, isolamenduak, bakartzeak, kolpeak, mehatxuak, umilazioak, komunikazioen bortxaketa etengabeak...».

Etxeraten esanetan, «eskubide urratze» hauen «arduradunak» Zapatero eta Sarkozyren gobernuak dira.

Hau guztia salatuz, Etxeratak elkarretaratzerako deitu dute gizartea Tolosako Triangulora. Hitzordua 19:00etan izango da bihar, hilak 13.

Pello Odriozola gogoan

Deialdia egiteko orduan Pello Odriozola tolosarraren egoera ez dute ahaztu: «Pellok 22 urte bete berri ditu espetxean. Tolosarrak kalean egon beharko luke. Guzti honekin amaitzeko denon konpromisoa beharrezkoa da. Kalean egon behar dugu, etengabeko eskubideen urraketa hau salatuz».

Kanpaina berria abian

Azken hila beteetan senide asko bitaririk gabe gelditu da Espainiara joan eta gero. Senide eta lagunak ikusteko hainbat arazo izan dituzte. Egoera honen inguruan salaketa egiteko, Etxeratak Espainiako Espetxe Erakundeetako fax zenbakia zabaldu du, kexa zuzenean hara bidaltzeko.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laburrak

Ekaitz Saralegik Lehen Mailan jokatuko du etzi

AMEZKETA » Asier Olaizola ez du igande honetan Logroñoko Adarra pilotalekuan Titin III.a eta Pascualen kontra jokatzerik izango, iragan ostiralean Urdulizen zuntz haustura bat jasan eta gero. Hau dela eta Ekaitz Saralegi amezketa iragan ostiralean Urdulizen zuntz haustura bat jasan eta gero. Hau dela eta Ekaitz Saralegi amezketa iragan ostiralean Urdulizen zuntz haustura bat jasan eta gero. Hau dela eta Ekaitz Saralegi amezketa iragan ostiralean Urdulizen zuntz haustura bat jasan eta gero.

Amazabalen urrezko eta zilarrezko aizkolariak bihar

LEITZA » Herriko pilotalekuan aizkora lehiak ikusteko aukera egongo da bihar, otsailaren 13an, 19:30tatik aurrera. Ureztoko Aizkolarien Binakako Txapelketaren baitan, Olasagasti-Etxebeite bikoteak Arria V-Txapategi edukiko dituzte aurrean. Zilarrezko mailan Saralegi I-Olano leitzarrek Kañameres I-Kañameres III edukiko dituzte aurrean. Kasu honetan, bikote bakoitzak 20 enbor moztu beharko ditu, 5 modu desberdinetan.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipirioa baserria, Soroila Zaharra www.rezolasagardologia.com

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 14 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.akelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martatzen postakaldea, 139

Mina Tel.: 943 555 220 Astigarraga
Txerrikieta pasalekua

Gartziategi Tel.: 943 469 674 Astigarraga
Donostia Astigarraga bidea, 5.km. www.gartziategi.com

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Ostaraun auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereñorru auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Iparragirre Tel.: 943 550 328 Hernani
Osiñaga auzoa, 10 www.iparragirre.com

Urdaira Tel.: 943 372 691 Agnaga-Urdail
Urdaira baserria

Arratzain Tel.: 943 366 663 Arratzain zahar baserria Urdail
www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com

Urbitearte Tel.: 943 580 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zeran
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ibarategieta
Ibarretz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Gazagartza baserria (Goberu auzoa) www.zabalapasa.com info@zabalapasa.com

Sarasola Tel.: 943 690 283 Antsoa
Bebalera auzoa

Ola Tel.: 943 623 130 Iruñe
Mezka auzoa, 102

Lindurrenborda Tel.: 948 637 212 Lesaka
Nabaz auzoa, 8

DIEZ Autobusak

Autobusak eta ibilgailuak zerbitzu berria

Maria eta Nazarioaren ibilgailuak

Orreaga, Ibarretz, Ibarategi, Ibarretz...

Mundutza bidea, 24 | Tel.: 943 28 84 16 | Fax: 943 27 11 37 | 2012 DONOSTIA

Posta elektronikoa: maria@autocaresdiez.net

